



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



IV. ERANSKINA

Suspertze, eraldatze eta erresilientzia planaren jarduketak gauzatzearekin loturiko adierazpena, datuak lagatzeari eta tratatzeari buruz

..... jaunak/andreak, NANA duenak, entitatearen kontseilari delegatuak/kudeatzaileak (IFZ:; egoitza fiskala:; Suspertze, eraldatze eta erresilientzia planetik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna, "Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak" izeneko 23. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduerak garatzean. 4. inbertsioa: "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde proiektu berriak"). Adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, bereziko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko 2021/1241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko honako atal hauek:

1. 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren esparruan, honako datu-kategoria bateratu hauek biltzea, bilaketak egitea ahalbidetuko duen formatu elektronikoko batean eta datu-base bakar batean, erreformak eta inbertsio-proiektuak gauatzeko neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoretza eta kontrola egiteko:

i. Funtsen amaierako hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izenak, baldin eta funtsen amaierako hartzailea adjudikazio-botere bat bada, kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo Estatuko zuzenbidearen arabera;

iii. Funtsen jasotzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan definitzen denaren arabera;

iv. Suspertze eta erresilientzia planaren esparruan eraberritze- eta inbertsio-proiektuak gauatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren guztizko zenbatekoarekin batera, eta Mekanismoaren eta Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa adierazita».

2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketaren onespenerari eta 15. artikuluko 2. apartatuan eta 23. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akordioen aplikazioari lotutako funtsen erabilerari dagozkien kontrol-prozedurei buruzko auditoretzaren ondorioetarako eta auditoretza horrek iraun bitartean. Batzordearen kudeaketa onesteko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 319. artikuluekin bat etorritik, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatutako finantza-informazioaren eta kontu-ematearen esparruan, eta, zehazki, bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat, adierazten dut datuak lagatzeko eta tratatzeko ados dagoela, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburutarako.

.....(e)n, 202....(e)koaren(e)(a)n.

Stua.

Kargua: